



Dagoeneko zerbitzu teknikoak martxan daude, izaera juridikoa erabat lotu gabe badago ere

2015eko martxoaren 20a, 433 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

BETERRI ESKUALDEKO GARAPEN AGENTZIA

Korrika larunbat goizean igaroko da Andoaindik eta Urnietatik

Asteazkenean Korrika txikiaz gozatuko dute ikasleek, eta Korrika larunbat goizean eskualdetik igaroko da.

Euskahaldun! izango da Korrikako edizio hone-tako lelo nagusia. AEKk esamolde berri horrekin "norberaren eta taldearen ahalmenean sines-teko" deia egin nahi du: "Batu ditzagun nire, zure, haren aha-lerin pertsonalak, eta areagotu dezagun gure ahalmena auzola-nean. Egin dezagun, eta eragin". Horrela lortuko da, AEKren ustean, euskaraz biziko den herria lortzea.

Korrikak eskualdea larunbat goizean zeharkatuko du. Adu-natik Sorabilla aldera iritsiko da, eta Korrikaren lekukoa es-kuz esku igaroko da Urnietara-ko bidean. Gizarte, kultura eta kirol mailako eragileak izango dira. Besteak beste, Andoai-nen, Korrikaren lehen lerroan



Korrikako aurreko edizioako argazkia, Idiazabal kaletik Hernani aldera.

aritutako dira Hurria-Sahara tal-dea, Axeri dantzako kideak, Udal langileak, kirol taldeak edota Arrospe enpresako lan-gileak. Urnietan, bestetik, On-bizi merkatari elkarteak, Poxta zahar gazte elkarteak, Urniet

Kirol elkarteak edota Kaiku en-presako langileak. Urnietan iga-ro eta gero, Korrika Hernani aldera igaroko da.

Bitxikeria modura, Korrika-ren ibilbidearen 400. kilome-troa Andoaindik igaroko da.

Hori dela eta Udalak 400. kilo-metroa hartu eta erronka bota du: "Baietz laurehun andoain-darrek Korrikarekin bat egin!". Izena eman daiteke Andoainda-rrak400.eus webgunean.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Lete gogoan



Elkarbizi ekimenak solasal-dia antolatu du Lekaion, da-torren astelehenerako.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Garrantzia handiko partida



Ganbara Saski taldeko senior mailakoek igorako ligaxka jo-katu ahal izateko partida ga-rrantzitsua dute larunbat ho-netan, Alurralden. Iluntzeko 19:15etan hasita.

[KIROL ALBISTEAK, 7. ORRIALDEA]

Haur festa Super H taldearen eskutik



Martxoaren 28an, Urnietako mendi lasterketaren bezperan, haur festa antolatuko dute San Juan plazan. Super H-ren eskutik.

Haur festa arratsaldeko 16:30ean hasiko da, 19:00ak arte. Eta tarte-an egitarau zabala: Las-terketa txikia, puzgarriak, taile-rrak, txokolate jatea eta Porrotx pailazoaren emanaldia.

5 euroko pultsera erosita ekitaldi guztiez gozatzeko au-keria izango da. Lortutako di-rua gaixotasun arraro eta on-kologikoen ikerkuntzarako ba-liatuko dute.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Futbol lehia bizia

Preferente mailan denboraldi osoan aurrealdean dauden Urnietako eta Euskalduna aurrez aurre, larunbatean.

[KIROL ALBISTEAK, 7. ORRIALDEA]

MAÑERU BIZIGUNEA

2 EDO 3 GELAKO ETXEBIZITZAK GARAJEAREKIN

DUPLEXAK PLANTA BAXUAK TERRAZA ZORAGARRIEKIN BISTA EZINHOBEAK MATERIAL BIKAINAK

GARAJE BIKOITZ ETA BANAKOAK TRASTELEKUEKIN

HURRENGO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA

URNIETAN BIZITZEKO ERA BERRI BAT

KALITATE EZINHOBEA PREZIO ONENEAN

2 EDO 3 GELAKO ETXEBIZITZAK GARAJEAREKIN 190.000 €-tik hasita

ZATOZ ETA INFORMA ZAITEZ! 606 957 532

www.altunayuria.com
www.inmoloiola.com

BETERRI GARAPEN INTEGRALERAKO AGENTZIA

Agentzia teknikoki martxan da, alor juridikoa finkatu gabe

Beterri Garapen Integralerako agentzia aurkeztu zuten Buruntzaldeko bost alkatek, aurreko ostegunean Hernanin. Dagoeneko zerbitzu teknikoak martxan daude, izaera juridikoa erabat lotu gabe ba-

dago ere. Andoain, Hernani, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Usurbilgo alkateek agentziaren helburuak eta orain arte abian jarritako ekimenak azaldu zituzten.

Andoni Gartzia Astigarragako alkateak, agentziaren helburu nagusia esaldi batek laburbildu dezakeela aipatu zuen: "Eskualdeko herritar, enpresa eta eragileekin batera, Beterriko ekonomia eta enplegua sustatuz, garapen sozioekonomikoa planifikatu eta garatuko duen erakunde erreferente bihurtzea da".

Agentziaren beharra ere azpimarratu zuen: "Beterriko gure eskualdea, Gipuzkoan dagoen antzeko egituratik gabeko eskualde bakarra da. Politikoei eta baita teknikariei ere, hasietatik ikusi dugu beharrezkoa dela agentzia martxan jartzea, eskualdeko langabeziari aurre egin, eta egoera aldatzeko estrategia, baliabide eta azpiegiturak ezartzea".

Ana Carrere Andoaingo alkateak, agentziak dituen lan sailak deskribatu zituen: "Zazpi lan-sail ditu: ekonomi soziala, enplegua, kooperazioa, parte-hartzea, iraunkortasuna, parekidetasuna, euskara eta ekitate".

Agentzia jada martxan dela azpimarratu zuen **Mertxe Aizpurua Usurbilko alkateak**: "Horren adibiderik garbiena, eskualdean enpresa eta erakundeekin landu ditugun proiektu estrategikoak dira".

INNOFORO ETA KOOPERATZEN EGITASMOAK MARTXAN DAUDE

Egitasmo horiek gauzatzeko asmoz erabilgarri izango diren bi lan tresna azaldu zituen Aizpurua. "Innoforo izeneko da lehena. Aukera berriak sortuko ditu, ekonomia suspertzeko, eta tokiko eragile eta enpresen arteko elkarlana bultzatzeko, azken batean, datozen urteetan lanpostu berriak sortu eta jarduera ekonomikoa berpiztuko duten proiektuak bultzatzeko".

Kooperatzen du izena bigarren lan tresnak. "Tokiko ekonomia garatzeko egitasmoa da, eskualdeko Udalek lankide-



Hernani, Andoain, Lasarte-Oria, Usurbil eta Astigarragako alkateek garapen agentziaren agerraldian parte hartu zuten.

tzan sortu eta ekintzaile berriei zuzendutakoa. Zerbitzu horrek, enpresa berriak sortzeko beharrezkoak diren prestakuntza, baliabideak, azpiegitura eta aholkularitza eskaintzen ditu".

AGENTZIAREN EGOITZA HERNANIN DAGO

Agentziaren egoitza Hernanin kokatzen da, **Luix Intxauspe Hernaniko alkateak** gogorarazi zuenez: "Hernaniko Gabriel

"Agentziaren sortze prozesu guztian, sei udalek hartu dugu parte. Arazoak izan ditugu agentziaren egitura juridikoa osatzerakoan, baina ziur gaude konponduko direla"

Luix Intxauspe

Zelaia eraikinean kokatzen da gaur aurkeztu ari garen zerbitzu sortaren egoitza". Mar-

txoaren 25ean jarri dute data, egoitza horren aurkezpenera egiteko. "Espazio fisiko hori ezagutarazteko, bertan eskaintzen diren zerbitzuen berri edukitzea, eta orain arte garatzen ari diren proiektu praktikoak azaltzeko egingo da ekitaldi ofizial hori". Informazio gehiago www.beterri.eus webgunean eskuragarri dago.

URNIETA, FALTAN

Agerraldian Urnietako Udal ordezkariaren hutsunea ikusita, kazetariak galderak luzatu zizkieten bost alkateei. Luix Intxausperen esanetan, "sei udaletako ordezkari politiko zein teknikarik garbi ikusi dugu hasiera-hasieratik, eskualdeak agentzi honen premia zuela. Agentziaren sortze prozesu guztian, sei Udalek hartu dugu parte. Egia da arazoak izan ditugula agentziaren inguruko egitura juridikoa osatzerakoan, baina ziur gaude hurrengo hilabeteetan konponduko dugula arazo hori. Udatik aurrera, hauteskundeak pasa ostean, errazagoa egingo zaigu adostasunerako bideak topatzea".

PSE-EEren kritika EH Bilduri

Buruntzaldeko sozialistek bost alkateek egindako agerraldiari berehalako erantzuna eman diote: "Bildukoek kea baino ez dute saltzen, lanik gabe daudenak engainatuz". PSE-EEK galdetzen du "ea zer nolako seriotasuna duen alderdi askoren ezezkia duen txiringitza martxan jartzeak, eskualdeko herri guztien parte hartzerik gabe, forma juridiko definitu gabeko agentzia sortuz. Eta

udaletxe batzuetako idazkariak eta kontu hartzaileek legez kontrakoa dela dioten txostenak tarteko izanda. Ez dugu ulertzen nola esan dezaketen xehetasun batzuk baino ez direla horiek guztiak, beren funtzionamendurako oinarritzko kontuak direnean".

PSE-EEK agentziaren izaera juridiko egokiena mankomunitatea dela defendatzen du.

DEKALOGOA

Aurkezpen ekitaldian Beterri Garapen integralerako Agentziaren dekalogoaz azaldu zuten:

1. Enplegua sortzeko erreferentzia-ko tresna da Beterri.
2. Pertsonen ongizatea izango du helburu. Hala, eredu justu baten alde egingo du, eta honako hauek sustatuko: lan-baldintza duinak, soldata duina, parekidetasuna, asebetetze-maila handia, eta lana eta familia uztartzea.
3. Aholkularitza eta gidaritza eskainiko du, besteak beste, enpresa sortzeko, lana aurkitzeko eta prestakuntza jasotzeko.
4. Eragileen dinamizaziorako koordinazio-gunea izango da, estrategiak adosteko espazioa.
5. Garapen sozial eta ekonomikoa helburu, eragileen arteko sarea osatuko da.
6. Metodologia berriak ezagutu, zabaldu eta komunikatuko ditu etengabe.
7. Lan-eredu berriak sortu, gauzatu eta garatuko dituzten eragileen babesleku eta lorbidetza izango da Beterri; proiektu berriak martxan jartzeko bultzada.
8. Eraginkortasunaren izenean arituko da lanean.
9. Elkarlana eta enpresa horizontalen ereduak izango ditu oinarri, eta erabaki-guneetan enpresaburuek eta langileek parte hartzea defendatuko du.
10. Aukera berriak sustatzeko eta enpresen arteko sinergiak bultzatzeko gunea da Beterri.

Andoni Gartzia, agentziaren egitasmoa eta arlo juridikoa ondo bereizi behar direla oharatarazi zuen: "eskualdeak premia handia dauka ekonomikoki gara dadin, eta ezin dugu zain geratu arlo juridikoa konpondu bitartean. Denon artean hainbat koordinazio esparru landu ditugu, baliabidea ekonomikoa, azpiegiturak, proiektuak... baditugu, eta beraz, tresna horiekin guztiekin aurrera goaz".

Haur festa mendi lasterketaren bezperan



Martxoaren 28an elkartasunezko haur festa antolatuko dute San Juan plazan.

Martxoko azken asteburua ekitaldiz beterik dator. Urnietako mendi lasterketaz gain, Super H taldearen aldeko festa iragarri dute. Festa hori bezperan izango da, alegia, larunbatean.

Urnietan ezaguna denez, Super H haurren gaixotasun arraro eta onkologikoen ikerkuntzan laguntzen duen elkarte da. Martxoaren 28ko ospakizunean lortutako dirua gaixotasun horien ikerkuntzan sakontzeko baliatuko dute.

Haur festa arratsaldeko 16:30ean hasiko da, 19:00ak arte. Eta tartean egitarau zabala: Lehenengo Urnietako Mendi Lasterketa txikia, puzgarriak, tailerrak, txokolatada eta Porrotx pailazoaren emanaldia. 5 euroko pulterara erosita ekitaldi guztiez gozatzeko aukera izango da. Super H taldekoek deialdi argia egin diete urnietarrei, “anima zaitezte eta parte har ezazue elkartasunezko festa honetan. Izugarri eskertuko dizuegu eta!”.

Urnietako alkatea Eusko Legebiltzarrean



Mikel Pagolak “Gazteriaren arazoei aurre egiteko ponentzia” n parte hartu zuen.

Martxoaren 10ean Eusko Legebiltzarrean egin zen “Gazteriaren arazoei aurre egiteko ponentzia” n Mikel Pagola Urnietako alkateak Eudel-Euskadiko Udalen elkartearen ordezkari gisa parte hartu zuen. Aurrean izan zuen Eusko Legebiltzarreko gazteriaren arazoen azterketa eta eztabaidarako eta

haiei erantzuna emateko lan taldea. Mikel Pagolak Eudelen ikuspuntua defendatu zuen Legebiltzarrean. Gazteei eragiten dieten arlo ezberdinak jorratu zituen: enplegua, etxebizitza, emantzipazioa, hezkuntza eta aisia, besteak beste; gazteriak egun dituen ardura nagusiak oso zabalak direlako.

Solasaldia Lekaion hurrengo astelehenean, 19:30ean hasita

Lete, hizpide eta eredu

Elkarbizi taldeak “Elkarbizitzaren zoru etikoa eraikitzen” jardunaldiak antolatu ditu Buruntzaldean. Sustaizaileek asmo zehatza dute, “eskualdean zoru etikoa eraikitzen lagundu nahiko genuke Elkarbizi taldekoek. Gure asmoa da indarkeriagatik kaltetutako elkarbizitza bere onera ekartzen laguntzea. Batzuk ‘gatazka’ delako horren gaineko agenda politikoa garatu nahi badute ere, gure lehentasuna bestelakoa litzateke: gaiztotutako gizarte-harremanak berreraikitzea. Elkarrekin bizitzeko bidea bilatzea denon obligazioa da, eta ez gatazka berriak irekitzea. Gure bailaran sufritu izan dugun indarkeriaren errealitate bidegabea gaitzestetik abiatuta. Gizarte-konfidantza eraberritzeko




asmoarekin, soilik lortu daitekeena gizaki bakoitza eta ororen duintasunari errespetutik abiatuz gero”.

Jardunaldi horien baitan Xabier Lete hizpide izango dute Urnietan. Hurrengo astelehenean, martxoak 23, mahai-ingurua antolatu dute Lekaion Felipe Juaristi, Inazio Mujika eta Jon Sarasua kultur gileen parte hartzearekin. Iluntzeko 19:30ean hasiko da “Xabier Lete, erreka zikinen ur garbien

“Xabier Lete, erreka zikinen ur garbien bila” izenburupean solasaldia Felipe Juaristi, Inazio Mujika eta Jon Sarasua kultur gileen parte hartzearekin

bila” izenburupean. Antolatzaileek Leteren aipu hau erabili dute solasaldia iragartzeko: “Utopia, definizioz, inon ez dagoen lurraldea da, eta, askotan, gehiegikerien koartada da. Ez, nik ez dut amets handirik behar; ez dut gezurretan bizi nahi. Proposa diezazkizatela erreforma zail baina posibleak, jendearen bizimodua hobetu dezaketenak. Ez dezala inork, etorkizuneko paradisu-jardinararen izenean, kale-bazterreko lore bat bakarra ere zanpatu”.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ANDOINGO EGUZKI ETA ZERO ZABOR TALDEEK PROPOSAMENA AURKEZTUKO DUTE

Hondakinen bilketa eraginkorra aztertuko dute

Andoaingo Eguzki eta Zero Zabor taldeek hondakin bilketa eraginkor baterako proposamena aurkeztuko dute martxoaren 25ean. Julen Begiristainek adierazi duenez, alderdi politikoei eta herritarrei

gonbidapena luzatu diete, proposamena entzuteaz gain, eurek ere beren iritziak azal ditzaten. Urigain kultur etxean jarri dute hitzordua, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Proposamen zehatz bat egiteko asmoa duzue. Ezer aurreratzetik bai?

Julen Begiristain. Bai, jakina. Prestatu dugun txostenean hondakin bilketa eraginkor baterako proposamena azaltzen dugu. Guretzako gakoa errefusa kontrolatzean datza, bilketa sistema edozein dela ere. Horretarako, gainontzeko edukiontzien erabilera sustatu nahi da, birziklatzea gehituz. Izan ere, hasieratik argi eduki dugu beharrezkoa izan arren ez dela nahikoa bosgarren edukiontzia ezartzea; horrek ez du ekarriko gaur egun oraindik birziklatzen ez duten birzikla dezaten (Gipuzkoak adibide ugari eskaintzen dizkigu). Hortxe kokatzen dugu erronka, beraz: oraindik egiten ez duenak egiten hastea.

Kontakturik eduki al duzue eragile ezberdinekin orain arte? Nolako harrera jaso duzue?

J.B. Landu dugun txostena herriko elkarte, antolakunde, eragile eta norbanako desberdinekin elkarbanatzen hasi gara. Alderdi politiko batzuei zuzenean gonbidapena luzatzeko aukera eduki dugu ere, eta bertan parte hartzeko interesa azaldu dute.

Mahai-ingurura zein eragile erakartzeari espero duzue?

J.B. Udalean ordezkaritza duten alderdiak zein Udaletik kanpo geratu zirenak gonbidatu ditugu ekitaldira. Alderdi politikoei bost minutuko tartea emango diegu gure proposamenaren inguruan iritzia eman eta beraien irakurketa, ideiak, egitasmoak..., herritarrei azal diezazkieten. Jakin badakigu politikariak direla aldagetak abian jar ditzaketanak, eta horrexegatik, garrantzitsua da beraien parte hartzea.

Nolanahi ere, herritarrek ere gonbidatuak daude; politikariek herritarren esanetara egon behar dute eta, jakin badakigu



Julen Begiristain, Orolitz eta Koldo Leunda Eguzkiko eta Zero Zabor taldeetako kideak.

“Eskualde mailan sistema desberdinak ezarri dira eta Andoain zaborren bilketa sistema zaharkitu honetan bakarrik geratu da”

askori ezinegon eragiten diela gaitz honek. Aukera paregabea izango da, beraz, guztiok elkarrekin ekitea, elkarriketa eta eztabaida tresna izanda.

Zer lortu nahi duzue?

J.B. Zaborraren eta hondakinen gaia aspaldi bilakatu zen arazo. Nork bere zaborra sortzen duen neurrian guztiok eragiten dugu arazoaren sormenean, baina modu berean, konponbidea ere guztiok ekar dezakegu. Horretan datza gure ideia, hots, gizarte osoa bideratzea birziklatu eta praktika egokiak egin ditzan. Hortaz, proposamena Andoaingo herritar guztiei bideratzen zaie, baina bereziki birziklatu nahi ez duenari. Izan ere, estadistikoei kasu eginez gero, biztanleriaren %30a da sektore hori. Kezgarria da, eta, nahita-

ez ikusten dugu martxan jartzea gizarte zati hori.

Zehazki, zer lortu nahi duzue mahai-inguru honekin?

J.B. 2007an publikoki adierazien 2009rako Gipuzkoa osoan bosgarren edukiontzia ezarriko zela. Baina gaur da eguna Andoain oraindik ez dela materia organikoa era bereiztuan, birziklatzeko eran biltzen. Gure proposamena arazoaren erroretara doa. Aipatu dugun bezala, ez da nahikoa bosgarren edukiontzia jartzearekin besteen ondoan. Bostgarren edukiontzia proiektu oso baten barruan ezarri beharko litzateke; errefusa txiparekin jartzeak garrantzi handia behar luke eduki proiektu horretan.

Sistema berbera da duela hilabete gutxi Tolosan martxan jarri dutena eta berehalakoak izan dira emaitzak: %70 baino gehiagoko birziklatze tasa lortu dute. Gauzak horrela, Andoain guztien artean adostu genuen 2016an %60eko birziklapen tasa lortzea. Egingarria iruditzen zaigu helburu hori, eta horretara bideratuko ditugu geure ahaleginak.

“Datuei erreparatuta, 2014ko abenduan Andoain birziklapen tasa %29koa zen. Portzentaia negargarria da, gure ustez”

Andoaingo herriari begira, egingo al zenukete hondakinen bilketaren gainera diagnostikoa?

J.B. Orain arte eskualde edo mankomunitate mailan biltzen ziren hondakin eta zaborrak; eskualde guztiko hondakinak nahastu egiten zirela, alegia. Hori dela eta, Andoainek zenbateko birziklatze tasa zeukan adieraziko zigun datu zehatzik ez genuen. Eskualde mailan sistema desberdinak ezarri dira eta Andoain sistema zaharkitu honetan bakarrik geratu da. Datuei erreparatuta, 2014ko abenduan birziklapen tasa %29koa zen. Portzentaia negargarria da, gure ustez.

Ez dugu ahaztu behar Europar Batasunetik datorren araudiak 2016rako %60ko gaikako bilketa egitera derrigortzen gaituela. Hortaz, asko dago egiteko.

“Prestatu dugun txostenean hondakin bilketa eraginkor baterako proposamena azaltzen dugu”

Andoaingo EAJk Udalak sortu zuen hondakinen mahaia utzi zuen iazko ekainean.

J.B. Jarrera hori arduragabezia galanta dela iruditzen zaigu. Gure asmoa, mahaian parte hartu dugunetik, eztabaida eta argudioak erabiliz neurri eraginkorrak modu adostuan lortzea izan da. Ez da ona bertako parte hartzaile bat mahaitik altxa izana.

EAJko hautagai Markel Olanok adierazi berri du Gipuzkoan garai-le ateratzen bada, beste neurrien artean, errauskailua eraikiko duela. Zer deritzozue?

J.B. Albistearen benetan txarra da. Ezin dugu iraganerako bidea hartu, gure ustez. Errauskailua Zubietan eraikitzeak Andoaini zuzenki eragiten dio. Erdigunetik 3 kilometro gertatzen da, hortaz kalteei begira eragin handiko eremuan geundeki. Beti esan dugu horrelako azpiegitura baten atzean, interes orokorra baino, interes partikular eta ekonomikoak daudela.

Gainera, zaborra erretzearekin ez da arazoa konpontzen, beste gauzen artean, sortzen diren errauts toxikoak zabortege berezietara eraman behar baitira. Hobe dugu Gipuzkoan abian dauden esperientzia desberdinetan begirada jartzea, zeinetan %60-90 bitarteko birziklatze tasak ematen ari diren. Lorpen horietara iristea izan behar du gure erronka, eta ziur gaude neurri eraginkorrak hartu ezker lortuko dugula. Geure aldetik, martxoaren 25eko mahai-inguruarekin gure aletxoak jarri nahiko genuke.

Aurkezpen ekitaldia
Martxoak 25. 19:30. Urigain.
Bidea: www.aiurri.com



Larunbat honetan Korrika eskualdean barrena



LARUNBAT GOIZEAN TOLOSALDETIK HERNANI ALDERA, EUSKARAREN KORRIKA LASTERKETA ANDOAINDIK ETA URNIETATIK BARRENA IGAROKO DA. HEMERETZIGARREN EDIZIOA ERE IKUSGARRI DATOR.

Adunako industriagunetik Andoain aldera sartzean, hitzez azaltzen zaila den emozioa azaleratuko da Korrikan parte hartuko dutenen artean. Euskara eta irribarrea ahoan, gorputza mugimenduan, Korrika gure hizkuntzaren alde egiten den ekimen ezagunetakoa eta indartsuenetakoa da, belaunaldi eta sentsibiltate guztiak batzen dituen. Larunbat honetan horixe bera ikusteko aukera izango da, Korrikaren 19. edi-

zioan. Andoain zeharkatuko du, lekukoa elkarte eta erakunde ezberdinek eramango dutelarik. Zuzenean Urnietara joango da eta han ere herritar askok bat egingo dute lasterketarekin, euskarekiko konpromisoarekin. Hernani aldera doala, Korrikan murgildu diren andoaindarrek eta urnietarrek lasterketan parte hartu izanaren poza eta euskaldun izatearen harrotasuna sentituko dute. Korrikari esker.

**ESKUALDEKO ORDUTEGIA:
MARTXOAK 21, LARUNBATA**

• Amasa-Villabona	08:29
• Zizurkil	08:48
• Aduna	09:01
• Andoain Sorabilla auzotik	09:14
• Urnieta Ergoien auzotik	09:53
• Hernani	10:19

KORRIKA 19

- Bilbon amaituko da martxoaren 29an.



19. korrika
Urepeletik Bilbora • 2015eko martxoaren 19tik 29ra

- Korrika Txikia: Urnietatik Andoainera
- Korrika: Andoaindik Urnietara
- Argazkiak, bideoak eta kronikak ikusgai www.aiurri.com webgunean
- **Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak**

KORRIKA TXIKIA



Euskaltzale txikiak ere, korrika

Andoain eta Urnietako ikasleek urratsak emango dituzte euskaren alde. Izan ere, martxoaren 18an Korrika txikia izango da bi herrietan. Urnietan, Egape, Salesiarrak eta Presentación de María ikastetxeetako gaztetxoak aterako dira herrian zehar lasterka.

MARTXOAK 18, ASTEAZKENA
11:00 | URNIETA
EGAPETIK ABIATUTA

Urnietan korrikalari gazteak goizeko 11:00tan abiatuko dira Egapetik. Presentación de María ikastetxe aldera joango dira eta San Juan plaza igaroz, Salesiarretara helduko dira. Ibilbideari amaiera emateko, plazara itzuliko dira berriro. Bertan, Udalak aurkezpena egin eta ikastetxeetako haurrek bertsoak kantatuko dituzte. Amaitzeko, ikasle guztiek elkarrekin Korrikaren aurtengo kantuari dantza egingo dute.

MARTXOAK 18, ASTEAZKENA
15:00 | ANDOAIN
GOIKOPLAZATIK ABIATUTA

Andoainen, berriz, bazkalostean egingo dute korrika saioa. 15:00etan abiatuko dira Goikoplazatik, Aita Larramendiren oroigarriaren paretik. Lekukoa La Salle, Ondarreta eta Ikastolako haurrek eramango dute. Stop liburudendatik barrena, Agustin Leitzu igarota, Ondarreta ikastetxera joango dira. Bertatik, Juan Bautista Erro eta Kale Berritik igarota, Bekoplazara. Horren ostean, Zumea plazako errotondari buelta emanaz, Eroski parera iritsi eta Kale Nagusitik barrena, Santa Krutz elizaraino joango dira. Eskola kaletik igarota, Laboraleko errontonda igaro eta Juan Bautista Erro zeharkatuta, Goikoplazara itzuliko dira berriro.

Ordubete geroago, 16:00ak aldera, Goikoplazan Korrika Txikiari amaiera emateko ikastetxe bakoitzeko ordezkari bana udaletxeko balkoira igoko da eta mezu bana irakurriko dute.

Ibilbidea eta lekukoak

09:14 SORABILLA • MARTXOAK 21, LARUNBATA • TOLOSATIK URNIETARA BIDEAN



Gorri Korrika 19ren ibilbidea. Norabidea, Tolosaldeetik Urnieta aldera.

09:14etan, Azelaingo zubitik Karrikara joango da, Aiztondo kaletik. Ondoren, Aita Larramendin sartu eta Txitibar plaza-tatik, Zumea zeharkatuz, Kaleberrira iritsiko da. Kale Nagusian ezkerretara hartu eta Doktor Huizitik Rikardo Arregira joango da, eta Pio Baroja eta Arteta kaleetatik itzuli bat eginez, Rikardo Arregira itzuliko da berriro. Agustin Lei-

tza kaletik Goikoplazara iritsi eta maldan gora, La Salle hiribidera sartu behar dute korrikalariek. Gero, ezkerretara sartu eta maldan behera Arantzibia plazarentz abiatuko dira. Geltoki parean ezkerretara joan eta tunelaren azpitik Gudarien hiribidean sartuko dira, Martin Ugalde kultur parkerantz. Bertatik, Urnietara joango da Korrika.



LEKUKOA ERAMANGO DUTENAK

- Aiurri aldiakaria
- Manuel Larramendi Kultur Bazkuna
- Euskalduna futbol taldea
- Aita Larramendi ikastolako ikasleak
- Gaztetxea
- Aita Larramendi ikastolako batzordea
- Axeri dantza
- Andoingo emakumeak
- Erraldioak
- Hurria-Sahara taldea
- Udala langileak
- Ondarreta-Leizaran ikastetxeak
- Urki dantza taldea
- Ezker abertzalea
- Oroitzu elkarte
- Aita Larramendi ikastolako langileak
- Gipuzkoako Ur partzuergoa
- Lasalle-Berrozpeko ikasleak
- Lasalle-Berrozpeko langileak
- Andoingo Udala
- Berriako langileak
- Elkarteak
- Kirol taldeak
- Arrospe

09:53 ERGOIEN • MARTXOAK 21, LARUNBATA • ANDOAINDIK HERNANIKO BIDEAN



Gorri Korrika 19ren ibilbidea. Norabidea, Andoaindik Hernani aldera.

Urnietara 09:53 inguruan iritsiko dira korrikalariak eta Ergoien auzotik barrena, Salesiar ikastetxean behera San

Juan kalean sartu eta plazan itzulita egingo dute. Ondoren, Aranzubi kalea zeharkatuz, Idiazabal kalera joango di-



LEKUKOA ERAMANGO DUTENAK

- Onbizi merkataria elkarte
- Salesiarrak ikastetxea
- Presentación de María ikastetxea
- Egape ikastola
- Udala
- Poxta zahar
- Urnieta Kirol elkarte
- Kaiku kooperatiba baserritarrak

ra. Herria igaro eta Hernanirako bidea hartuko dute Langarda auzunetik aurrera.



Udalak 400. kilometrora deitu ditu herritarrak



Laurehungarren kilometroaren lekukoa Arantzibia tuneletik hasi eta Martin Ugalde kultur parkean amaituko da

Andoaindarrak 1615-2015 mendeurrena ospatzen ari dira bete-betean. Hemerote-kari erreparatuta, Ana Carrere alkateak mendeurrenaren aurkezpenean dagoeneko euskal kulturari aipamen zuzena egin zion: “Begirada atzera bota eta gertatu zena gogoan dugula, 400 urte hauetako ibilbideari erreparatu nahi diogu, gaur egun Andoaingo eraikuntzan parte hartzen dugunok bat eginez. Horixe baita Andoain; bertan jaiotako eta jatorri ezberdinetatik etorritako herritarren nahasketa; euskal kulturatik abiatuta, gure herria den bezalakoa egiten duten kulturen batura. Horrexegatik aukeratu dugu *Andoaindarrak 400* leloa, Andoaindarrak 400 garelako”.

Korrikaren ibilbidearen 400. kilometroak inon interesa badu, hori Andoain herrian da. Eta hara non, kasualitate eder horietakoa, laurehungarrena Andoaingo herrigunetik barrena igarotzen den! Aurreko ostegunean Basteron, Korrikaren aurkezpen ekitaldian, AEK-ko

kideek aitortzen zuten kasualitate hutsa izan dela, ez dela aurrez landutako zerbait. Andoain herri izaera lortu izanaren laugarren mendeurrena hain sakon ospatzen ari diren urte honetan, esanahi berezia du. Horregatik, Korrikak Andoaingo Udalarari eskaini dio 400. kilometroa eskuratzea. Udalak, proposamena jaso eta berehala “*Baietz laurehun andoaindarrek Korrikarekin bat egin!*” kanpaina martxan jarri zuen. Andoaindarrak400.eus webgunean xehetasunak eskaini dituzte: “Udalak Korrikaren 400. kilometroa erosi du eta herritarrak bertan korri egitera animatu nahi ditu. Laurehungarren urteurrena Korrikarekin lotuta, erronka bat luzatu diete andoaindarrei: Ea laurehun lagun batzen garen! Parte hartu nahi duenak izena eman beharko du eta horien artean, mendeurrenako materiala zozketatuko dugu”.

Laurehungarren kilometroaren lekukoa Arantzibia tuneletik hasi eta Martin Ugalde kultur parkean amaituko da.

Dagoeneko hainbat herritarrek kilometro berezi horretan parte hartzeko izena eman dute. Aukera zabalik dago.

Andoaindarrak400.eus



Aurkezpen ekitaldia

Aaurreko ostegunean Bilbon Korrikaren aurkezpen ofiziala egin ari ziren ordu bertsuan, AEK euskaltegiko kideek Korrikaren aurkezpena egin zuten Basteron. Urepelen hasi eta Bilboraino, Korrikak Euskal Herria zeharkatuko du datozen hamar egunetan. Tartean, martxoaren 21ean Andoaindik barrena igaroko da. Amaia Goikoetxea eskualdeko Korrikako arduradunak azaldu zuenez, aurtun, Durangoko Azoka eta euskaldun adierazgarri diren pertsonak omendu nahi izan dituzte. Basteroko aurkez-

pen ekitaldira berrogeita hamar lagun inguru hurbildu ziren eta bertaratutakoek Korrikak edizio honetarako landu duen “Gu Euskahaldunak Gara” dokumentala ikusi ahal izan zuten. Korrika Andoainera ekarriz, aurreko edizioetan Korrikako lekukoa eraman dutenen argazkiak eskaini zituzten pantaila handian. Argazki-bilduma hori osatuago geratuko da aurtengoa igaro eta gero. Izan ere, dozenatik gora izango dira elkarte eta instituzioen ize-nean Korrikaren lekukoa eramango dutenak.

Bertso afaria



Martxoaren 6an “Bertso Korrika” antolatu zuten Irunberri elkarteak. Hitzordura hainbat euskahaldun hurbildu zen. Ando-

ain eta Lasarte-Oriako bertsolariak lehiatu ziren bertso afarian. Lasarte-Oriakoak gailendu baziren ere, giro ona nagusitu zen.





Maite Otaño Urnieta Kirol Elkarteke UKEko idazkaria da.



Urnieta Kirol Elkartea

Urnietan, Udalak edota ikastetxeek gain, Urnieta Kirol Elkartek ere erosi du kilometroa. Aurtengoa, gainera, ez da lehenengo urtea. **Maite Otaño** idazkariak azaldu duenez, bigarren aldia da eta aurrerantzean ere erosteko ohiturari eutsi nahi diote.

Zergatik erabaki duzue aurtan ere kilometroa erostea?

Kirolean beti euskararen alde egin izan dugu. Entrenatzaileak eta prestatzaile fisiko guztiak euskaldunak izan daitezela saiatzeko gara, eta, herriko gazteekin lan egiten dugun neurrian, euskara bultzatzen saiatzen gara. Horregatik, iaz kilometroa erostea erabaki genuen eta aurtan ere hala egin dugu, ekimen oso polita delako eta aukera ematen digulako gure aletxoak jartzeko.

Zein paper du euskarak zuen elkarteetan?

Euskarak badu lekua kirolean. Dena den, egia da gazteek gaztelaniara ere jotzen dutela. Ez da erraza, baina entrenatzailea euskaraz zuzentzen denez, beraien ere euskaraz egiten diete. Saiatzen gara euskaraz komunikatzen eta bultzatzen. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu Korrikan parte hartzea. Batetik, euskara bultzatzeko eta, bestetik, kirolarekin lotuta gaudenez eta Korrika arikeria fisiko bat ere badenez, uste dugu gazteek parte hartu behar dutela.

Nork eramango du lekukoa zuen kilometroan?

Kirolariak eramango dezaten gustatzen zaigu. Duela bi urte, beteranoei eman genien aukera; senior mailako eskubaloiko neskek eta pilotari batek eramango zuten lekukoa. Aurtengoan, ordea, aurkakoa egin nahi izan dugu eta gaztetxoek eramango dute. Batetik, nesken gutxiengoa kontuan hartuta, futboleko infantil mailako neska batek eramango du; eta bestetik, kadete mailako pilota-

“Euskaldunak batzea eta elkarrekin euskararen alde egitea da bereziena”

riek eramango dute, oraintxe lortu berri dutelako Gipuzkoako Trinkete Txapelketako txapela. Beraiei gure omenalditxo hori egin nahi diegu.

Zein aurreikuspen dituzu Korrika egunerako?

Egokitu zaigun kilometroa Urnietako azkenekoa da, Hernaniko errotondaraino doana. Bertan, hernaniarre pasako diegu lekukoa. 09:53etan Urnietan sartuko dela iragarri dute, eta gu ordurako, gure lekuan zain egongo gara. Bertan elkartuko gara, lekukoa emango dutenez gain, gainontzeko kirolariekin. Dena den, kirolari hauek Urnietako ikastetxeetakoak ere badira, eta ulertzen dugu ikastetxeek erositako kilometroak egin nahi izatea. Politia izango litzateke dena egingo balute.

Gogoko al duzu Korrikak sortzen duen giroa?

Bai, izugarri. Euskalduna naiz jaiotzetik eta izugarri gustatzen zait furgoneta atzean sortzen den giroa. Ni ere korrika aterako naiz; ez dakit amaieraraino iritsiko naizen, baina saiatu behintzat egingo naiz. Orain prestaketa lanetan nabil eta gogoak piztu zait: bileretan parte hartuz, Urnietan egin diren ekimenetara joanez, jantziaren bat erosiz... Pixkanaka girotzen ari gara eta aste bate falta den honetan, gogoz nago.

Zer du berezia bertan korri egiteak?

Korri egitea baino gehiago, egun hauetan euskaldun guztiak batzea eta elkarrekin euskararen alde egitea da bereziena. Euskal Herri guztiatik ibiliko da eta Urnietara ere iritsiko da; gure unea iritsiko da. Beraz, jendea mugitu behar dugu euskararen alde egitera.



Zortzi urtez AEK-ko ikasle izan da Emilio Benitez.

Andoain AEKko beteteranoa

Emilio Benitez andoaindarra zortzi urtez izan da AEKko ikaslea. Euskara ez jakitetik, guztiz euskaldundu eta euskaraz bizitzera igaro da. Korrika iristeko gogoz dago eta herriarrak bertan parte hartzera gonbidatu ditu.

Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

Hemen jaio nintzelako eta nire hizkuntza zela sentitzen nuelako. Eskolan ez genuen aukerarik izan ikasteko eta betidanik sentitu izan dut behar hori.

Nola aldatu da zure egunerokoa orduetik?

Erabat euskaraz bizi naiz orain. Lagunekin, lanean eta egunerokotasunean euskaraz hitz egiten dut. Nire harremanak euskaraz izan daitezela saiatzeko naiz. Beraz, nire helburua bete dut. Oso pozik eta harro nago. Euskararen alde apostu egitea merezi du, oso aberasgarria delako.

Korrikako lekukoa eraman izan duzu behin baina gehiagotan. Zer moduzko esperientzia izan da?

Hunkigarria da. Nahiz eta metro batzuk soilik izan, lekukoarekin joatea eta atzetik jendea datorrela ikustea oso pozgarria da. Gainera, antolatzaileek zure izena esanez animatzen bazaituzte emozionantea izaten da. Korrika ekimena euskaltegian ezagutu nuen eta orduan jolas bezala hartzen genuen. Orain, ordea, ikusten dut gero eta jende gehiagok parte hartzen duela, eta kaleko presentzia hori oso garrantzitsua da.

Nola biziko duzu aurtengo edizioa?

Aurtan ez dut lekukorik eramango baina, noski, korrika aterako naiz. Adunatik datorrenez, Gaztetxe paretik pasatzen denean sartuko naiz. La-

“Herriarrak atera daitezela kalera eta egin dezatela euskararen aldeko aldarrikapena”

gunekin joango naiz. Gainera, Ontza elkartearen txokolatea emango dute.

Zergatik da Korrika berezia?

Oso giro ona egoten da eta oroitzapen oso onak ditut. Aurtengoan goizez pasako da, baina, esate baterako, duela bi edizio gaureratu izan zen Andoaindik. Hego haizearekin, izugarritzko giroa zegoen... Herri osoa kalera irten zen. Hori oso polita izan zen. Horregatik, jendea animatu nahiko nuke parte hartzera; herriarrak atera daitezela kalera eta egin dezatela euskararen aldeko aldarrikapena.

AEK antolatzen duen ekimena denez, bertako ikasle izanda gehiago bizitzen al da?

Agian bai. Ikaslea izanda eta euskalduntzeko prozesuan egonda, beste modu batera bizitzen da. Babes moduko bat ematen du eta euskara ikasten jarraitzeko gogoak piztu. Korrikak euskaldunatzen ari garenon ahalegina eskertu eta omendu izan du eta babes hori jasotzea asko eskertzen da.

Egiten duzun esfortzuaz jendea kontziente dela uste al duzu?

Kontziente badira, baina ez dute laguntzen. Euskaraz ari zarela baina kosta egiten zaizula edo ez zarela oso fin ari ikusten badute, gaztelaniara jotzen dute askok. Eta horixe da egin behar ez dutena, hori euskararen aurka joatea baita. Euskarak militantzia behar du eta hori faltan sumatzen dut. Korrikan parte hartzea, militantziaren puntu bat izango litzateke, baina baita ikasten ari direnei laguntzea edo beraien hizkuntza gehiago lantzea ere.

Belabieta elkartearen erakusketa eta solasaldia



Komunisten tabernaren azpiko egoitzan erakusketa ikusgai izan da.

Aurreko astean memoria historikoan oinarritutako erakusketa ikusgai izan zen Komunisten tabernan. Tartean, garai hartako prentsaren muntaiak eta 36ko Gerran eraildako andoaindarren erretratuak.

Erakusketa burutu zen egunean Xabier Lasa Oroituzeko kideak hitzaldia eskaini zuen Andoainen errepresio frankistak izan zuen eragina aztertuz. Entzuleek ere solasaldian parte hartu zuten.

EAJ-PNVk proposamen ekonomikoa aurkeztu du



Mari Jose Izagirre jeltzaleen hautagaia alkatetzarako.

Andoaingo Euzko Alderdi Jeltzaleak Udal eta Foru hauteskundeetarako prestatu duen proposamen ekonomiko zehatza aurkeztu zuen aurreko ostiralean, Urigainen. Alkatetzarako EAJ-PNVren hautagai Mari Jose Izagirrek bere alderdiak lau ardatz finkatu dituela zehaztu zuen: enplegua sortu, ekonomia suspertu, herriko

merkataritza lagundu eta turismoa sustatzea.

Etorkizunera begira, teknologia espezializatua lortzeko "jauzi kualitatiboa" eman behar dela uste dute jeltzaleek. "Gure arbasoek industria eta zerbitzuetan oinarritutako Andoain eraikitzen jakin zuten, eta, orain, guri haratago joatea dagokigu", azaldu zuen Izagirrek.

Eskelak, hileta-oharrak Aiurrin

@diseinua@aiurri.com
☎ 943 300 732



Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren XXVII. edizioa

Kazetaritza sari nagusiak

Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta **Esti Mujika** Andoaingo Udaleko Euskararen Normalizazioarako zinegotziak, XXVII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariara lanak aurkezteko deia egin, eta beronen oinarriak aurkeztu zituzten aurreko ostiralean Donostian, prentsaren aurrean burutu zen ekitaldian. Andoaingo Udalak antolatzen du urtero Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin eta babesarekin. Helburua euskarazko kazetaritzaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da. Aurkezpen ekitaldian partaide izan zen **Beñat Zamalloa** ere, iaz Rikardo Arregi Saria eskuratu zuen kazetaria.



Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Esti Mujika zinegotzia eta Beñat Zamalloa kazetaria.

26 urteko ibilbidean euskal kazetaritzaren erreferentzia bihurtu da Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, eta egun euska-

razko kazetari lanean sona handikoak diren hainbat sindura ezagunek jasoa dute sari hori.

zuri esker

“Gizarte Zerbitzuei esker, nire lagun Nairak kalte egiten zion harremana gainditu du eta libre bizi da orain.”

Ainhoa, 17 urte

Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu
Zure eskubidea da

#ZureEskubidea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

www.gipuzkoa.eus

Kampaniaren kostua: 17.500 €

“Komunikabideak eta bizikidetza” solasaldia



Olatz Yarza aurkezlea eta solaskideak: Martxelo Otamendi, Pablo Muñoz, Luis R. Aizpeolea eta Gorka Landaburu.

Kazetari ezagunak bildu zituen “Komunikabideak eta elkarbizitza” izenburua zeraman mahai inguruak Urigain kultur etxean, martxoaren 12an. Buruntzaldeko Elkarbizi elkarteak antolatua zuen ekitaldia. Onda Vasca irratiko esatari den **Olatz Yarzak** gidatuta, El Pais egunkariko **Luis R. Aizpeolea**, Gorka Landaburu, Noticias taldeko **Pablo Muñoz** eta Berriako zuzendari **Martxelo Otamendik** jardun zuten ordu terdi iraun zuen solasaldian.

Yarzak eta Otamendik sarreratxoa euskaraz egin ostean, gaztelaniaz burutu zen gainerako solasaldi guztia.

Gorka Landaburu izan zen hitza hartzen lehena. Etorkizunari ekiteko, atzera begiratu beharra dagoela azpimarratu zuen: “Denbora berriak bizi ditugu Euskadin, eta askok hausnarketa egin beharko lukete. 40 urteko terrorismoa bizitu dugu, eta baita poliziaren indarkeria; hemen, Andoainen, kazetariak erail, mehatxatu edo torturatu egin dira, eta baita egunkariak itxi. Kontua ez da zauriak urratzen ibiltzea, baina bizitu dugun guzti hori gogoratu egin behar da. Herri honetan denok gara elkarren ezagun, orain arte askok elkarri ez diogu diosalik ere egin, eta elkarbizitzan egin nahi badugu aurrera, garrantzitsutzat jotzen ditut keinuak, horiek txikiak eta pertsonalak izan arren”.

Atzera begiratze horretan, gaizki jokatu izanaren aitormena batez ere ezker abertzaleak egin beharko lukeela adierazi zuen, besteak beste, Landaburuk.

Luis R. Aizpeoleak ere sektore politiko horrek biolentziarekin edukita-konplizitateaz azpimarratu nahi izan zuen mahai inguruan. Hala ere, bera Madrilgo prentsa hartu zuen hizpide, nagusiki. “Ni oso ezkorra naiz Madrilgo kazetariakin. Salbuespen bat edo beste kenduta (Ser Katea, El Pais, Lasexta...) gainerakoak, eta batez ere El Mundo, ABC eta La Razon egunkariak, PP baino erreakzionariagoak dira ETArek gaiari dagokionez. Ikuskizun penagarria ematen ari dira aspalditxotik”. Hainbat adibide jarri zituen iritzi hori indartzeko. “ETAk armak uztea iragarri zuenean, 2011ko

urrian, prentsa horrek Mayor Orejaren kontsignari eutsi zion, dena iruzurra zela esanez. UPyDk ezker abertzalea legeaz kanpo utzi nahi izan zuenean ere, harekin bat egin zuten, ahots bakarrek abesbatza baten antzera”.

Pablo Muñoz ez zen aldendu diagnostiko etsigarri horrekin. “Medio horiek elkarbizitzari ez beste edozein egin diote mesede azken urtetan”. Hainbat arrazoi aipatu zituen analisi hori baieztatuko luketenak: “Lerratzeko ideologikoa, euren medioen interes ekonomikoekiko morrontza, jarraia patologikoa... Zenbait kazetariak iruditzen zaie liskarrik ez bada, galtzaile irtengo direla”.

Nahi edo amets bat plazaratuz ekin zion hitz jardunari Martxelo Otamendik. “Medioek normalean, teniseko epailearen jarrera hartzeko ohitura daukagu. Mugitzen den guztiari nota jartzen diogu, adjetiboekin, editorialekin... e.a. Bada garaia, barrura begirako ariketa egin dezagun. Gure herriko gatazkari nola jokatu dugun, zer egin dugun biktimen minaren aurrean, norengana hurbildu garen eta norengana ez... Ondo legoke hemengo egunkarietako zuzendariak eta zuzendari ohiak noizbait bildu, eta azterketa sakon bat egitera jarriko bagina”.

Landaburuk hasieran aipatutako keinuen beharrari eutsi zion Otamendik, eta bere kasua azaldu zuen. “Orain pare bat urte Berriaren ize-nean Rikardo Arregi saria jasotzea egokitu zitzaidan. Bada, jendarean, aitortu nuen ez nuela zuzen jokatu Lopez De la Calleren gertatu zenean. Prentsari lotua egoteaz gain andainarra zen, gure egunkaria kokatzen den herrikoa zen, baina ez nintzen kapaz izan familiarengana hurbiltzeko. Nik uste beharrezkoak ditugula horrelako keinuak egitea, besteei hau eta beste eskatzeaz batera”.

Objetibitateaz eta etikaz eta beste hainbat gai aztertu ziren mahai inguruan, eta gehienetan, ezkortsuna izan zen nagusi prentsak elkarbizitzaren gainean egin dezakeen ekarpena jorrazterakoan. Ipar Irlandako bake prozesuan Ingalaterrako prentsak edukitako jarrera eredugarritzat jo zuten, alde horretatik.

HITZ-GEZIDUNAK



* IRUDIKO ESTATUA	▼	Abegia	▼	Zuhaitz mota	▶				
Meza laguntzailea		Zuen		Handi					
▶		▼		▼					
Gurdi mota	▶				Urania	▶	Jazo, bokalik gabe	▶	
Jipoia					Bokala		Pilota jokaldi		
▶				▼		Putre	▶	▼	
						Nasa, moila			
Gizon izena	▶				Gorotza	▶		▼	
Pl., musika tresna					N birritan				
▶				▼				Potasioa	▶
								Nitrogenoa	
Molusku mota	▶			Haiei, nuen	▶			▼	

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER ESKUIN: 1.- Selenioaren ikur kimikoa. Metalen erakarleak. 2.- Arloa. Izaniko. 3.- Nasa, moila. Miresmena. 4.- Zero. Galdetazile bat. Infusio mota. 5.- Toka, naiz. Entzuteko moduan. 6.- Ez eme. Barre xume. Kontsonantea. 7.- Begiaren erdiko beltzune biribil. Intsektu mota. 8.- Joan den urtea. Pluralean, jantzi mota. 9.- Landare erregarriak. Jainko egiptoarra.

GOITIK BEHERA: 1.- Hondo handikoa. Kasik, abantzu. 2.- Juntagailua. Hats. 3.- Adi ezazu! Beldur, ikara. 4.- Bat eta berrogaite hamar, zenbaki erromatarren arabera. Hasi! Kontsonantea. 5.- Funts. Letoniako hiriburua. 6.- Bokala. Norbait. ... egin, goitik ari. 7.- Galdetzaile bat. Zuen, hai. 8.- hegazti mota. Jatorria adierazteko atzizkia. 9.- Modu atzizkia. Gizon izena

HIEROGLIFIKOA



Gipuzkoako herri bat

ERANTZUNAK

Errenteria

EZKER ESKUIN: 1. Se. Inmanak. 2. Alala. Ohi. 3. Kai. Mira. 4. O. Zein. Te. 5. Nauk. Ozen. 6. Ar. Int. D. 7. Nini. Ohi. 8. Iaz. Goren. 9. Asunak. Ra. **GOITIK BEHERA:** 1. Sakona. 2. Eta. Arras. 3. Aizu. Izui. 4. IL. Ekin. N. 5. Mamt. Riga. 6. A. Inot. Ok. 7. Nor. Zion. 8. Ahalte. Tac. 9. Ki. Endika.

	N	E	I	N	V	N	A
K		K	A	N	I	R	A
A	K	A	K		E	R	K
I	A	S		A	R	R	E
Z	J		U		A	R	L
A	N	U	G	A	L	A	Z
R	A	Z	I	L		H	B
A	R	I	L	A	B		
R	A	T	A	K			
A	L	E	A	B	S		
B	B		M				





KIROL ALBISTEAK

Urnietako Mendi Lasterketa, astebete egun handirako

Eskualdeko korrikalari eta zaletu askok dagoeneko mendi lasterketaren laugarren edizioa ikusmiran dute. Hamar egunen buruan lasterketa Xoxoka auzoan hasi eta bertan amaituko da. Urnietako Mendi Lasterketa, gainera, Euskadiko Mendi Federakuntzak antolatzen duen Euskal Herriko txapelketa erabakitzeke ere balia-



garria izango da. Edizio hone-tan, beraz, araudia federazioak ezarriko du. Kadete mailako txapelketa, esaterako, ibilbide laburrean erabakiko da, 11.5 kilometroko ibilbidean. Ibilbide motzeko lasterketaren irteera lasterketa nagusiarena baino bost minutu geroago izango da, ibilbidean zehar pilaketarik sortu ez dadin.

Emaitza onak Gipuzkoakoan

Aurreko asteburuan Gipuzkoako neguko txapelketak jokatu zituzten Tolosako igerilekuan, eta bertan Buruntzaldea IKT taldeak eman zuen maila azpimarragarria izan da. Neskak orokorrean hirugarren postuan sailkatu dira, eta mutilak laugarren. Horrez gain, domina ugari lortu zituzten. Maila bat aipatzen hasita, infantil mailako neskak bakarka eta taldeka lehen postuetan aritu ziren. Taldeka, esaterako, 4x100 estiloan txapeldun, 4x100 libre proban bigarren eta 4x200 libre erreleboan brontzea.



Jubenil nesken garaipena

URNIETA 17
AIALA ZARAUTZ 10
Jubenilak, neskak. Garaipena eskuratu zuten larunbatean, etxean jokatuak norgiagokan. Urnietarrek partida zaila espero zuten, bi taldeen arteko azken partidak oso borrokatuak izan zirelako. Lehenengo zatian urnietarrek defentsa in-



Dorronsoro Aialako bi aurkariren artean.

dartsua zutela erakutsi zuten. Erasoan, ordea, trabak aurkitu zituzten. Bigarren zatian partida erabat aldatu zen. Urnietakoak lanean jarri eta zaletuen animoekin markagailuan 10-9 aurretik jarri ziren. Hortik aurrera baloi asko lapurtuz eta 5-1 defentsa eginez, garaipen argia eskuratu zuten.

Ganbararen partida erabakiorra Allurralden

ASTEBURUKO EMAITZAK:

Ordizia 68
Ganbara Seniorrak 65
Azken jokaldian garaipenak ihes egin zien, bi proroga eta gero. Asteburukoan igoera fasean aritzea jokoan izango da.

ASTEBURUAN ALLURRALDEN:

Ganbara Seniorrak-Legazpi: Larunbata, 21. 19:15.
Ganbara Kadeteak-Añorga: Igandea, 22. 09:30.
Ganbara Infantilak-Mondragon: Larunbata, 21. 09:00.


Gaztazaleak taldearen irteera Miranda de Ebrora



Jon Gaztañaga Ponferradina taldean jokatzen ari da, 2. mailan. Haren alde sortu zen Gaztazaleak taldeak irteera antolatu zuen aurreko igande-

an Mirandes-Ponferradina partida ikusteko. Egun polita igaro zuten, lastima Jonek 15 minutu soilik jokatu zituela. Bere taldeak 2-1 galdu zuen.

Andoaingo taldea podiumean



Junior mailan Andoaingo txirrindulari taldeak podiumera igotzen jarraitzen du. Eibarren taldeka jaun eta jabe izan eta gero, Donostiako Egiako proban Koldo Velasco tarteko helmugatan irabazle izan zen.

Urnietako-Euskalduna partida

Euskalduna 1-0 Lengokoak
Sanpedrotarra 3-0 Urnietako
Asteburuko partidak:
Urnietako-Euskalduna
Larunbata, 21. 18:00.

Preferente maila

Sailkapena, futbola:

1. Orioko	57
2. Euskalduna	52
4. Urnietako	45



AEB bizikletan, 30\$ eta bi makulurekin

Martxoak 25, asteazkena
19:00 SAROBEN

Hizlaria:
Isabel Suppe



GazteguneUrnietako



Tel.: 943 333 973
gazteinformazioa@urnietako.org

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com Erredaktoreak: Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com Publizitatea: Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. Lege Gordailua: SS-1078/04. ISSN: 1698-4870. Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com Tel.: 943 300 732

Banatzzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). Inprimategia: Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

MARTXOAREN 18TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “El negociador”. 19:30, 22:00. Martxoak 21, larunbata. 19:30. Martxoak 22, igandea. 19:30, 22:00. Martxoak 23, astelehena.
- Haurrentzat: “Bob Sponja”. Martxoak 21 eta 22. 17:00.

Urnietan

- “Stand by me: Doraemon”. 16:00, 18:30. Sarobe. Martxoak 22, igandea.

Tailerrak

Urnietan

- Tai Chi saioak. Gazte Asanbladaren eskutik. 10:30-11:30. Ludoteka. Igandero. Doan.

Jardunaldiak

Urnietan, Sarobe

- Bake eta bizikidetzaren jardunaldiak, II. edizioa. Antzerki foruma, partaidetza mugatua: 11:15. Gaztelaniaz. Martxoak 28, larunbata.

Aisialdia

Urnietan

- Aste Santu aurreko hiru egunetan eta Pazko asteen tailerrak, jolasak eta irteerak.

Musika

Andoain, Bastero

- “Ray Fernandez”, Kubako Trova berria. Gonbidatuak: “Joseba eta Bakartxo dantza eskola”. 20:00. 12 euro. Martxoak 19, osteguna.

Hitzaldiak

Urnietan

- Xabier Leta hizpide: Felipe Juaristi, Inazio Mujika, Jon Sarasua. 19:30. Lekaio. Martxoak 23, astelehena.
- “Viajes con Rocinante” Isabel Suppe bidaiaria. 19:00. Sarobe. Martxoak 25, asteazkena.

Andoain

- “Katalunia-Euskal Herria: Erabakitzearen eskubideari bidea ireki!”: Jaume Mareany (ANC), Angel Oiarbide (Gure Esku Dago) eta Martxelo Otamendi. Gure Esku Dagok antolatuta. 19:00. Bastero. Martxoak 24, asteartea.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- “Andoaingo kaleak denontzat berdin (=)”. Hobetu beharreko puntuen mapa osatzeko prozesua. Azken eguna: martxoak 28.

Korrika 19

Andoain, Urnietan

- Korrika Txikia: 11:00 Urnietan. 15:00 Andoain. Martxoak 18, asteazkena.
- Tolosaldeko Hernani aldera: 09:01 Aduna. 09:14 Andoain. 09:53 Urnietan. 10:19 Hernani. Martxoak 21, larunbata.

Antzerkia

Urnietan

- “Euli giro”, aurre estreinaldia. Ainhoa Casina, Miren Gaztañaga, Erika Olaizola. 19:00. Sarobe. 4 euro. Martxoak 21, larunbata.

Ospakizuna

Urnietan

- Mendi lasterketaren bezperan, haur festa Super H elkartearen alde: lehen lasterketa txikia, Porrotx, taillerak, puzgarriak, etab. 17:30. San Juan plaza. Martxoak 28, larunbata.

Deialdiak

Andoain

- 7 eta 13 urte artekoentzat, “Udalekuak 2015” deialdia. Informazioa Gazte Informazio bulegoan. Martxoaren 18tik 30era.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Juan Jose Carmona 49 urte beteko ditu martxoaren 19an. Zorionak eta muxu handiak etxeko partetik.

URNIETA

ZORIONAK BIKOTE



Martxoaren 26an hamar urte beteko dituzue. Orain arte bezain alai eta jator jarraitu! Ondo pasa eta muxu bana. Aitonak eta amonak.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRI

- diseinua@aiurri.com
- Aiurriko bulegoan: 943 300 732.
- Aukera berria Whatsapp bidez: 619 163 537.

Literatur solasaldia

Udal liburutegian



“Una lectura nada común”

Alan Bennett
Martxoak 24, asteartea.
Ordutegia: 19:00-20:30.
Bastero.
Izena emateko: 943 300 615 telefono zenbakira deituz.
liburutegia@andoain.eus helbide elektronikora idatziz.

Aste Santua Urnietan

ASTE SANTUAREN ATARIKOA

Martxoak 30, astelehena

10:00-13:00:
Joko-jolasen ginkana: kooperatiboak...

Martxoak 31, asteleartea

10:00-18:00:
Irteera bizikletan.
Apirilak 1, asteazkena
10:00-13:00:
Eskulan tailerrak: kamisetak, telefonoarentzat zorroak, etab.

PAZKO ASTEA URNIETAN

Apirilak 7, 8 eta 9

Arantzibia ludoteka
11:00-13:00:
Tailerrak: kristalezko bola, mister potato... eta hainbat joko: lurra-ura, zapi jolasa, ginkana globoekin...
17:30-19:00:
Tailerrak, jokoak: Baso bilketa, baloi eseria, zapi jolasa...

gazteria@urnieta.eus

Joxe IRAZU AZKUE jauna,

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko bazkidea.
Larraulen hil zen, Añezabalaundin, martxoaren 13an, 86 urte zituela.



Bertan jaioa, lurrari emana
bizitu gera eta hazi;
muin berriak ernatuz gero
kimuak zaintzen ikasiz,
Ama-lurrari leialtasunez
izadi oro miretsiz.

Ez naiz, ordea, joana,
ez pentsa,
hementxe bainaiz
zuekin;
kimu berrien loraldiari
ezin baitiot huts egin.

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna
Larraul, Beterri, 2015eko martxoak 16.

M. LARRAMENDI

Mari Karmen ARRASTOA IRAOLA andrea,

Donostian hil zen, martxoaren 16an, 66 urte zituela.

Geure bizitzan apal-apalik,
sartu zinen zu bai ezti;
bihotzez samur eta izaeraz
eskuzabala bai beti!
Nola ba utzi, zu joan zaitezen
Mari Karmen gutaz gaindi...

Zeure arimako hatsarreetan
zintzo, jator ta kezkatik;
izarrarteak zure lilura
ongi gordetzen baleki!!
Izan zaitugu zorion eta
maitasunezko sumendi!!

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lagunak, esker onez.
Amasa-Villabona, Beterri, 2015eko martxoak 17.

M. LARRAMENDI